

**B**

BARREN

TOKIKOM

ELGOIBAR - 775. zenb. - XVIII urtea - 2011-03-18



# **“Frankismoaren kontra bihurtu zen Burgosko prozesua”**

**Jon Etxabe, Burgosko prozesuan auzipetuetako bat**


# LAGUNAK KOLTXOI DENDA- TEXTIL HOGAR

**ETORRI ZAITEZ GURE KOLTXOI  
ERAKUSKETA BERRIA IKUSTERA!**

Koltxoi marka guztiak ditugu,  
bilatzen duzuna ez baduzu  
hemen topatzen ekarri egingo dizugu.  
Anima zaitetz, eta zatoz bisitan.



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Ohe geriatrikoak



Masajedun besaulkiak



## interesgarria!

### Sektore eolikoarentzat Mekanizazio *ikastaroa*

Mekanizazioko Zikloetako titulodun langabetuentzat.  
270 ordu, arratsaldez. Praktikak enpresetan.  
Hasiera apirilaren 4an.

**%100** subentzionatuta Sarbideak programari esker

## IMH, Elgoibar

Izen emateak: 943 744 132 telefonoan - [nora@imh.es](mailto:nora@imh.es) - [www.imh.es](http://www.imh.es)

## Morkaiko

Iazko urtean zehar, elkartea irteera gabeko kale batean ikusten genuen Morkaiko Mendizale Elkarteko zuzendaritzakook. Morkaiko M.E. tradizio handiko elkarte bat da, baina denbora batetik hona, indarra galtzen ari zela somatzen hasiak ginen. Eta horren harira, galdera asko egin genizkion gure buruari:

Zergatik ez da jendea irteeretara etortzen?

Gazte jendeari ez al zaio mendia gustatzen?

Zertarako nahi du herriak / bazkideak Morkaiko?

Edo agian, beharrezkoa ote da Morkaiko herrian?

Holakotxeetan azkar konturatzen da bat galderak zein diren errezak eta erantzunak, oster, zein zailak! Gu behintzat ez ginen ganorazko erantzunik topatzeko gai.


Hori horrela, iazko urte bukaeran, gogoeta prozesu bat hasi genuen. Gauzak era ezberdin batean egitea nahi genuen, eta horretarako jendearen parte-hartzea eta beraien hitza jasotzea ezinbestekotzat jotzen genuen.

Berrogeita hamar bat lagun elkartu ginen egun oso batez Morkaiko berria gorpuztu nahian. Benetan eskertzekoa da jaso genituen eta oraindik ere jasotzen ari garen parte-hartze, borondate eta laguntza guztia. Eskerrik asko bene-benetan; argia izan zarete iluntasunean.

Orain gutxi, otsail hasieran, lokalaren inaugurazioa egin genuen Morkaiko 2.0 abian jartzeko. Berandu izan aurretik guk ere 1.0-tik 2.0-ra egin nahi dugu salto, teknologia

berrien tankeran. Morkaiko herriko mendizaletasunaren topagune bihurtzea nahi dugu. Norantza bateko bideak sortzetik alde guztietatik datozen bideen elkargunea izango den espazioa sortzea eta ereitea da gure helburua. Horretan ari gara.

Eta hemendik aurrera zer? Horri ez diogu guk bakarrik erantzun nahi; zuen txanda da! Badakizue non gauden, nahi duzuenarako.



Aitor Zubiaurre

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetari: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

## “Morkaiko herriko mendizaletasunaren topagune bihurtzea nahi dugu”

ESKERTZA

### MARIA LUISA BELAUSTEGI ARRILLAGA



*Martxoko hego haizearekin  
joan zara isilean  
San Jose lorek beren distiraz  
zelaiak horitzean  
kukua ere entzungo dugu  
laster San Migel gainean  
gurekin somatuko zaitugu  
Berdezkundeko parrapean  
beti-betiko egongo zera  
gure bihotzen bamean*



2011ko martxoaren 12an hil zen. Haren oroimenez meza izango da, martxoaren 27an, goizeko 11:30ean Elgoibarko San Migeleko elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)


**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Aina Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Aina Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Aina Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Ismael Berasategi

Etxean argazki zaharren albuma ireki eta erretratoak ateratako uneko kontuak oroitzen nabilela ikusi zaitut. Umetako erretratoa da, "es igual, mañana jueves" esaten genuen garraioa, Ospas-Gainen ateratakoa, txuri beltzeko argazkia, Kilimon sortu aurretiko futbol taldearena, alegia.

Zutik zaude, hegal-hegalean, zure akolito flekilloarekin, besoak gurutzatuta, argazkirako preposioz jantzita eta serio antzean. Zure anaia Jose Antonio, berriz, erdian dago, nikia kanpoaldean eta galtzerdiak behearaino dituelarik; fama eman zion bere kalparrarekin, betaurreko eta guzti.

Erretratoari ondo erreparatuz gero, oin-puntetan ikus zaitzakegu, anaiak zeukan altuerara iristeko nahian eta partida hasi bezain azkar izkin eginez alde egiteko moduan. *Kaparra*, ordea, geldirik dago, irribarretsu eta ilusioz bete, lasai ederrean; aldamenean, galdera ikurrezko aupegia duen atezaina duela.

Nago, Parisen eginiko jokaldiaren preludea zenerabilteka, artean.

Goraintziak Mendarotik, Isma.

J.L. Zubiaurre

### Energia: beharra ala negozioa?

Libiako gatazka eta Japoniako hondamendia denon ahotan dabilen honetan, baliatu dezagun unea energiaren gaineko kontzientzia hartzeko!

Etorkizuneko bidea energia berriztagarrien ekoizle txikietan dago; batetik, energia berriztagarriak sortu, eta, bestetik, kontzientzia hartzeko balioko du. Hortik etorriko da energia aurrezteko kontzientzia, autosufizientziatik!

Udalak eredu izan behar du, eta eraikin publikoetan berak egin beharko lituzke inbertsioak, eta bide batez, eraikin pribatuetan inbertsio horiek egitea lagundu edo bultzatu beharko luke. Elgoibarko Udalak planteatzen duen eraikin publikoetan inbertsio pribatuak ez dauka zentzurik! Borondatea diruarekin demostratzen da, eta hemen etxeak egiteko ikerketetara bideratzen da dirua, horra hor Udal honen borondatea.

Elgoibar energetikoki hobetzeko adibideak mila daude; adibidez, Madalako argiteriaren zati handi bat alferrik galtzen da, zerura begira. Itxurakeriak utzi eta izan gaitezten efektiboak.

1.000 etxebizitza berri proiektatu dira, baina kontuan hartu ote da 2020. urterako etxeek bete behar dituzten Europak ezarritako baldintzak? Ez ote da hobe etxeak eraberritzen hastea, berriak egin aurretik? Eraikuntza bioklimatikoak egitea eskatzen du legeak, teknologia honen gaitortua lehenengo urtetik aurrera amortizatzen dela diote gainera. Nora begira gaude? Noren interesak defendatzen? Imaz eta konpañiarenak ala herritarrenak?

Informazio gehiago: <http://okilbeltzak.blogspot.com/>

Okil Beltzak

### Gizon zaharraren arima

Duela urte batzuk, auzoan gizon zahar bati baratza kendu zioten eta berak landatutako Olibondo bat ere bota zuten. Ilusioa lapurtu zioten, eta handik hilabete gutxira hil egin zen gizona.

Baratza zegoen lekuan porlanezko lautada grisa dago gaur, baina olibondoak baino adar eta seme gehiago dauzka. Horietako batean hitz egin dugun gizon zaharraren arima bizi da, zuhaitza gordetzen eta inguruko jende maitea zaintzen.

AHT Ez Elgoibar



Iigo  
Lariz

Aupa, Ainhoa. Gu bixok alkartzen gaitun gai nagusixan inguruan hasiko naiz gogoeta egitten. Kirola oso gai zabala da, gutxi batzuk bizibide moduan debe, beste batzuk *hobbytzat* praktikatzen debe, eta badaude gutxi batzuk medikuak derrigortu diuelako ariketa fisikua egitten debena ere.



Ainhoa  
Lendinez

Nik modu desberdiñian bizi izan dot kirola. Umetatik gustau izan jata, eta ez bat bakarrik gaiñera. Txikitan zapatu goizetan multikiroleko partiduak eukitzen genduzen, eta domeketan guraso eta lagunekin mendi irteerak egitten hasi giñan. Oporretan Pirineuan eskiatzen ikasten hasi giñan. Geruago, asteburuetan bizikletia hartu eta inguruko porturen bat igotiar ekin giñon, eta goititik behera karrera zatoren gero. Eskalaztziari ere ekin giñon rokodromuan. Baiña urtiak aurrera juan ahala, kirol batian espezializatzen hasi nitzan. Bizikletia asko gustatzen jatan, eta gaiñera nahiko ondo moldatzen nitzan kirol honetan. Txirrindularitzak daukan exijentzia mailla igotzen jua zan, eta berari dedikau biharreko denboria ere bai, eta klaro, beste kirol eta ekintzeri kendu bihar izan niuen denbora haura, bizikletia nire bizitzako ardatz bihurtu zan eta.

**“Kirola biharrezkua da neretzat, lasaigarri onena da eta”**

Guzti honekin nora iristia nahi doten galdetuko dezu. Ba, orain, nire bizikletero ibilbidia bukatu doten honetan, berriro ere kirol desberdiñak praktikatzeko aukeria eta denboria izatea lortu dot. Mendiko eskia neguan, bizikleta pasiarak, mendi lasterketak eta kilometro bertikalak uda inguruan, eta oiñ duatloi eta triatloietan saiatu bihar naiz. Buruak denboraldi luze batian egitterik izan ez dittudan jarduerak egittera bultzatzen nau. Gaiñera, kirola biharrezkua da neretzat, lasaigarri onena da eta. Eta zuk zela, bizi izan dezu kirola, Ainhoa?

Aupa, Iñi! Gure etxian ere betidanik izan dira kirolzaleak. Aita, batez ere. Pasarte asko dauzkat buruan. Hondartzara joan eta nahi gabe baloi bat gerturatzen zen aldiro, ostikoa jo eta berehala sartzen zen edonorekin taldean. Lehen aldiz Behobia-Donostia lasterketa egin zuenean, begiak atera beharrean espaloitik begira geunden ahizpa, ama eta hirurok. Bat-batean, ikusi nuenean, errepidera egin nuen salto, hura agurtzeko. Gero ohartu nintzen milaka lagun zirela korrika! Egia esan, aitari kirol gehienak gustatu izan zaizkio betidanik. Larunbat eta igande asko egin ditugu San Pedron eta Madarixan raketarekin, eta mendira ere txikitatik joan izan gara.

**“Oreka moduko bat ere ematen dit kirolak, ia beti lagundu izan dit eta”**

Akordatzen naiz unibertsitate garaian dantzan ere banenbilenez, eskubaloia utzi egin nuela. Orduan uste izan nuen amaitu zela nire kirol bizitza! Baina talde-kiroletik banakako kirolera pasatu nintzen. Bizikletan egin nuen lehen irteera Debara izan zen, aitarekin mendi-bizikletan. Egun hartan bertan esan nion errepidekoa probatu nahi nuela. Korrika jarraitzen nuen, eta, azkenean, duatloia probatu nuen. Amets bat betetzea izan zan niretzat!

Ni ez naiz oso lehiakorra. Hobetzea gustatzen zait, baina kirolean ikasi dut gerta daitekeela urte bateko emaitzak hurrengo urtean goitik behera etortzea. Horregatik saiatzen naiz ez obsesionatzen. Kirola ez da nire bizibidea, baina bai bizitza ulertzeko modu bat. Ikaragarri gustatzen zait, eta horri eutsi nahi diot. Tourrera joan eta oilo-ipurdia jartzen zait. Nahaste Borrasteko irteeran gaudenean, *ironman* baten hasiera dela iruditzen zait. Hori guztia da kirola: osasuna, lasterketako nerbioak, lagunekin eta familiakoekin sentsazioak konpartitzea, animoz gaizki zaudenean dena ahaztea... Oreka moduko bat ere ematen dit, bizitzako pasarte on eta txarretan, ia beti lagundu izan dit eta.



I. URTEURRENA

**JOSE LUIS RAMON PEREZ**

2010eko martxoaren 18an hil zen.

**“Gure artetik joan zara baina gurekin jarraitzen dozu”**



## ‘Erreminta makinaren industria eta Lanbide Heziketa’ zine-foruma antolatu dute martxoaren 23rako

Angel Ajuriaren ‘Erreminta makinaren gaurkotasuna’ filma eskainiko dute

**E**rreminta makinaren industria eta Lanbide Heziketa zine-foruma antolatu dute martxoaren 23rako Elgoibarko Udalak, Makina Erremintaren Museoak, IMHK eta MEKAK, elkarlanean. Elgoibarko Makina Erremintaren Museoan jarri dute hitzordua. Zine forum horretan *Erreminta makinaren gaurkotasuna* filma ikusi ahal izango dute hara gerturazten direnek. Angel Ajuriak 1966. urtean zuzendutako filma da, eta ezkon berria den atzerritar teknikari baten gorabeherak kontatzen ditu. Bilboko Erreminta Makinaren Biurtekoan parte hartzera eta Erreminta Makinaren Euskal Industriari buruzko txosten bat prestatzera etorriko da teknikari hori Euskal Herrira. Filma bera erreminta makinaren ingurukoa izanik, esan beharrik ez dago Elgoibar eta herriko zenbait enpresa ere agertzen direla bertan, eta baita hainbat elgoibartar ere, tartean filmaren ostean izango den mahai inguruan parte hartuko duen Julen Zabaleta bera.



Espainiako Makina-Erreminten Elkar-teak (AFM) berreskuratu du Euskadiko Filmategitik *Erreminta makinaren gaurkotasuna* filma. Elgoibarrera, berriz, AFMn lan egiten duen Jose Mari Barrutiaren birtartez ailegatu da zinta hori. DVD formatuan iritsi ere, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Diputazioak jarritako diruari esker zaharberritu baitute 1966ko pelikula.

Filma ikusi ostean, mahai inguru bat ere izango da martxoaren 23ko zine forumaren barruan. *Lanbide Heziketaren garrantzia atzo, gaur eta bihar* jarri diote izenburua, eta honako lagun hauek parte hartuko dute: Luis Mari Iriondok, Joseba Kondek, Manuel Zabalak, Julen Zabaleta, Maria Axun Larrañagak eta Joxean Egañak.

## Herritar talde batek HAPOn kontrako alegazioak aurkeztu ditu



HAPO Hiriaren Antolamendurako Plan Nagusia berri aurretik herriak zer nolako Elgoibar nahi duen jakitea ezinbestekoa dela ohartarazi du HAPOn kontrako alegazioak egiteko batu den

taldeak. Haien ustez, HAPOk ez ditu jasotzen interes talde ezberdinen beharrak. Umeak eta gazteak ez dituela aintzat hartzen salatu dute, besteak beste hiri antolamendu berri horretan ez dela-

ko Gaztetxerik, ensaio lokalik, eta kultur sormenerako espaziorik agertzen, eta ezta umeekin egoteko lekurik ere. Etxegintza politika ere salatu dute. Babes ofizialeko etxe gehiago eraiki beharrean, lehendabizi etxebizitza gehiago behar den aztertu behar dela adierazi dute, eta beste ezeren aurretik, etxebizitza zaharrak berri eta alokairua sustatu beharko luketela. Horren harira, Sigman etxe berriak eraikitzeko plana bertan behera lagatzeko eskatu dute, besteak beste auzo hori *gheto* bihurtzeko arriskua ikusten dutelako. Etxeak egitekotan, berriz, eraikuntza bioklimatikoan alde egitea eskatu dute. Prentsa ohar osoa [www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net).

## Izena **Arnaldo Otegi**



Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 20.000 euroko isuna jarri dio Espainiako Estatuari, Arnaldo Otegi ezker abertzaleko kidearen adierazpen askatasuna urratu zuela leporatuta. Martxelo Otamendi Egunkaria-ko zuzendariak Guardia Zibila-ren aldetik jasotako torturak salatu zituen kartzelatik irten berritan, eta salaketa haien ondoren, Espainiako erregea "torturatzailen burua" zela esan zuen Otegi. 2003. urtea zen. EAEko Auzitegi Nagusiak errugabe jo zuen Otegi, baina gero, 2005ean, Espainiako Auzitegi Gorenak urtebeteko espetxe zigorra ezarri zion, eta Konstituzionalak ez zuen zigortuaren babes helegitea onartu. Defentsak Europara jo zuen, babes eske, eta Estrasburgok orain arrazoia eman dio Otegi.

## Irudia **Natalia Mellado 'Cine de Barrio' saioan**

Concha Velascok aurkezten duen *Cine de Barrio* telebista saioan parte hartuko du Natalia Melladok bihar. *La novia de Juan Lucero* pelikula emango dute biharko programan. Orain dela hamabi urte hil zen Juanita Reina abeslari eta antzezlea da filmeko protagonista, eta haren omenez, *Una Cantora* pieza kantatuko du Natalia Melladok. Horrez gain, orain gutxi estreinatu duten *Antología de la copla* ikuskizunari buruzko elkarrizketa bat egingo diote elgoibartarrari. Manolo Escobar, Carlos Vargas eta Siylvia Pantoja musikariekin batera prestatu dute ikuskizuna. Hainbat koplak ezagunen errebasoa egiten du ikuskizunak, eta, besteak beste, Manolo Caracol, Lola Flores edo Rocío Jurado bezalako koplarietara omenaldia egiten diete. *Cine de Barrio* saioa bihar arratsaldean ikusi ahal izango da, TVE1ean.



## **Mikel Ibañezi egin behar zioten ongi-etorria debekatu egin zuten**

Herrizaingo Sailak debekatu egin zuen martxoaren 11n Mikel Ibañez preso elgoibartarrari Plaza Handian egin behar zioten ongi-etorria. Bere osasun egoera larriagatik (minbizia du, eta uztailearen 20an miokardio infartua izan zuen) baldintzapean libre laga dute Mikel Ibañez preso, eta Elgoibarko ezker abertzaleak ongi-etorria antolatu zuen joan zen barriakurako. Ekitaldian, gaixotasun larriak dituzten presoak eta zigorra beteta dutenak ere omendu nahi zituzten. Azkenean Kimetz elkartearen batu ziren denak afaltzeko.

## **San Roke eta Sigma auzoek sarbide berriak izango dituzte udarako**

Urtebeteko atzerapena izan du obrak, baina oztopoak gainditu ostean, Ubitarte Buru eta San Roke auzoa lotzen dituen pasabidea ekainerako amaituko dutela aurreratu du Udalak. Horrez gain, 50 bat ibilgailuentzako aparkalekua ere egingo dute ingurune horretan.

Urtarrilaren amaiera aldera hasi zituen Construcciones Sukia enpresak Sigma auzorako sarbide berria egiteko lanak. Ondo bidean, uztailearen hasiera aldera erabiltzeko moduan egongo da bide berria, lanak amaitzeko bost hilabeteko epea dute-eta.

## **Zuhaitz Eguna ospatuko dute datorren egunean**

Datorren egunean, martxoaren 24an, Zuhaitz Eguna ospatuko dute Ikastolako eta Herri Eskolako umeei. LH6. mailako 82 umek hartuko dute parte, eta 40 zuhaitz landatuko dituzte Albitxuriko ingurunean. 9:15ean elkartuko dira guztiak Melintongo matederoan.

# JON ETXABE

## BURGOSKO PROZESUAN AUZIPETUETAKO BAT

**Altzolarra da sortzez Jon Etxabe (1933), baina Etxarrin bizi da. 1958-1968 bitartean apaiz izan zen, eta 1968an atxilotu egin zuten, ETAko kide izateagatik. Bost egunez torturak jasan ondoren, kartzelan sartu zuten preso. 70ean Burgosko prozesuan epaitu zuten, beste hamabost lagunekin batera, eta 50 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. 1976an laga zuten libre, eta euskararen aldeko lanean murgildu zen gero. 1997tik, preso eta iheslarien eskubideen alde dihardu lanean.**



## “Herriak gelditu zuen Franco”

**Altzolakoa zara jaiotzez. Zelakoa zen zure gazte sasoiako Elgoibar?**

Guretzat Elgoibar urruti gelditzen zen. Futbolarera, zapatak erostera eta azokara joaten ginen Elgoibarrera. Altzolarrak ginen, eta gainera independente sentitzen ginen. Baserri izandako etxe bat zen gurea, herrigunetik kilometro batera zegoen, eta Mispillibar zuen izena.

**Euskaltzale amorratua zara zu. Eibarren ...eta kitto! euskara elkartearen sorreran parte hartu zenuen, eta Elgoibarren ere aritu zinen euskararen alde lanean. Nola gogoratzen dituzu garai haiek?**

Nahiko oroitzen onak ditut. Kartzelatik etorri berrian, Elgoibarren bizi izan nintzen, eta orduan aritu nintzen zerbaitetan. Baita geroago ere, Elgoibarren eskolan nenbilela. Zenbat bilera egin ote genituen orduan Lorito elkartearen, euskara gai hartuta! Euskal Herrian Euskaraz ere militantzen nuen orduan, eta ni ordurako Eibarrera joana nintzen arren, bilera haietan lagun izan nituenek sortu zuten gero BARREN ere. Irrati libre bat ere bazen orduan [Zazpiki], eta han ere ibiltzen ginen. Aspetean behin, ordubeteko irratsaio bat egiten genuen, euskararen inguruan. Euskara mun-

dua, baina, eskolan bizi izan nuen nik bereziki. Maisu egin eta Elgoibarko eskola publiko-  
ra etorri nintzen, eta D ereduaz ezartzea lortu genuen. Lan handia izan zen, prozesu luzea. Nik uste dut Elgoibarren euskarari egin diodan ekarpen handiena horixe izan zela: eskola publikoan D ereduaz ezartzea. Jakina, ez zen nire lorpena izan, talde oso batena baidzik, bazirelako talde hartan ni baino jantziagoak, besteak beste Elgoibarko Izarraren bueltan dabilizan hainbat.

**Euskal kontzientzia hori etxetik datorkizu?**

Bai. Giro abertzalea genuen guk etxean. Gaztetxoan nintzela, jada seminarioan ikasten nengoela, nire aitaren paper eta liburu klandestinoak topatu nituen nire gelako komoda batean gordeta. Sindikatu abertzaleen pape-  
rak, Jose Antonio Agirreren *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín* liburua... denak irakurri nituen, eta hor sortu zitzaidan nire kontzientzia abertzalea eta euskararen aldekoa.

**ETAn ere ibilitakoa zara. Noizbait irakurria ditzut askatasun egarriz sartu zirela erakunde-  
an.**

Ibili nintzen, bai. Burgosko prozesuan auzipetu aurretik ere ezaguna zen hori Elgoiba-

rren, atxilotu nindutenean ETAko militante nintzela aitortu nuelako. Apaiza eta ETAko militantea nintzen, eta horrek harritu egin zituen asko, ezin zutelako ulertu apaiz bat nola ibili zitekeen indarkeria babesten zuen talde batean, armak hartuta. Sekulako kontraesana zen hori, eta da gaur egun ere.

**Eta nola bizi zenuen zuk kontraesan hori?**

Naturaltasunez. Nik beti esaten dut ni ez naitzela pentsalaria eta ez nuela gehiegi teorizatu horren inguruan, baina jabetzen nintzen nolako ur sakonetan sartzen nintzen. Jabetzen nintzen sekulako kontraesana zela, baina ni bizitzak eraman ninduen horra. Nire kristau kontzientziak ere bai. Batetik, hor zegoen besteei lagundu beharra eta herriaren alde egin beharra, eta bestetik, hor zegoen baita ere abertzale gisa bizi nuen herri zapalkuntza. Hala, iritsi zen eguna ETAko batzuei laguntzeko eskatu zidatela. Oso lan erraza jarri zidaten: autoaz hara eta hona eramatea. Ni apaiza nintzen, herriari laguntzeko, eta gazte haiek herriaren alde ari ziren. Gero beste gauza batzuk ere gertatu ziren, Meliton Manzanaskomisarioaren hilketareta [1968ko abuztuaren hil zuten], eta nik alde egin nuen, ezkutatzera. Eskandalu bat izan zen hori,



apaiz batek ihes egitea. Egia esan niretzat ere sekulako kolpea izan zen hilketa hura.

### **Eta liberatuta hasi zinen gero erakunde armatuaren barruan.**

Bai. Nire kontraesan guztiekin, baina baietza eman nien, jakinda hori ordura artekoa baino askoz gogorragoa zela. Armak ere hartu nituen gero. Liberatutako lagun batek hala galdetu zidan behin: "Armarik badarabilk?", eta ezetz nik. "Ba hire ardurarekin pentsatu ezak!", erantzun zidan. Propaganda ardura duna nintzen ni orduan. Estuasunen bat gertatzen bazen arma lagungarri egingo zitzaidala esan zidan lagun hark, Polizia beldurtzeko balioko zidalako. Horregatik hartu nuen arma, eta ez ekintza armatuetan aritzen nintzelako eta ezta asmorik nuelako ere.

### **Arma aldean darabilenak badakizu beti izan dezakeela tentazioa atera eta tiro egiteko. Ausartuko zinen tiro egitera?**

Pentsatzen dut baietz, baina ez nuen horrelako beharrik izan, eta ez dakit nola jokatu nuen.

### **Armak gordetzea ere leporatu zizuten. Non gordetzen zenituen?**

Bai. Behin etorri zitzaizkidan materiala gordetzeko lekuren bat behar zutela esanez. Paperak ziren gehienbat, baina inoiz ekarri izan zidaten armaren bat ere. Bueno, egia esan, ez dakit armak ziren edo zer, baina nik banuen armak izan zitezkeen susmoa. Elizan gordetzen nituen, nire etxean [Eibarko Azitain auzoko parrokoa izan zen].

### **Ez du ematen leku txarra denik zerbaitezku-tatzeko.**

Ez du ematen, ez. Badakit nik alde egin eta gero hara joan ziren apaizek susto bat baino gehiago hartu zutela, han gordetako gauzak topatu zituztenean.

### **Atxiloketa bera zelan izan zen?**

Guk geuk, ETAko militanteok, egindako bi akats larriren ondorioz atxilotu gintuzten. Batetik, Mogrovejotik Bilbora ihes egin zutenak [Bittor Arana, Mikel Etxeberria Iztueta, Txutxo Abrisketa eta Mario Onaindia] Arteka kaleko etxera joan ziren, eta han Polizia zuten zain [1969ko apirilaren 9a]. Erabakia genuen ez ginela gehiago etxe hartara joango, bagenekielako horrenbestetan gordelekutzat erabiliko etxe hari susmo txarra ere hartua izango ziola norbaitek, baina joan egin ziren, eta akabo [Santanderren igaro zuten denboran Andoni Arrizabalaga atxilotu zuen Poliziak, eta ordurako Arteka kaleko etxea lagatzea



*Jon Etxabe eta Andoni Arrizabalaga, ikurriñari eusten, Elgoibarren. Argazkia: Azkue*

erabakita zuten]. Bigarren akatsa guk geuk egin genuen. Gaur zen, eta Arteka tiroketa izan zela bagenekien, baita gure lagunetako batzuk harrapatu zituztela ere, eta berehala alde egin beharrean, hantxe gelditu ginen gu.

### **Nola ohartu zineten atzetik zenituztela?**

Mongrovejo herrian geunden gu orduan, bagenekielako Aberri egunean polizia asko egongo zela kalean Euskal Herrian. Ezagutzen genuen ingurua. Gainera, Marinen, Eskoriatza eta Gatzaga bitarteko hogeitabat etxetako auzoan apaiz egon nintzen garaitik ondo ezagutzen nituen nik txakurren zaunkak. Atxiloketako goiz hartan, goizeko seirak aldera, jabetu nintzen txakurren zaunka haiek ez zirela normalak, eta ezezagun batzuk ibili behar zirela han kanpoan. Leihora urreratu, eta trikornio bat ikusi

nuen. Poliziak ziren. Lagunak esnatu eta esan nien: "Txakurak zeudek hemen". Han tiroka hasteak ez zuen merezi, eta entregatu egin ginen.

### **Torturak ere salatu zenituzten gero.**

Bai. Orduko Segurtasun Ministerioak, Justizia ministroak eta gotzainek eurek ere ez zuten garbi hitz egin. Gaur esaten zuten bera esan zuten orduan ere: torturen kontua geuk asmatutako ipuina zela. Herriak bazekien, baina, eta badaki, gaur egun ere, torturak egon zirela eta daudela. Denok torturatu gintuzten. Mario Onaindiaren kasua buruan grabatuta daukat. Ziegan sartu ninduten, eta atea zabaldu zutenean, Mario Onaindia ikusi nuen burua handi-handi eginda. Haren aurpegia beltzune handi bat zen, eta gogoan daukat haren begiak nola argitu ziren ni ikustean.

**Teo Uriarterekin ere topo egin zenuen kartzelan.**

Basauriko kalabojoetan izan zen. Teo Uriarteren ziegaren aldamenekoan jarri ninduten, eta gogoan daukat nola kontatzen genizkion elkarri egin zizkiguten tortura guztiak, komuneko tuberiaren bitartez. Komisaldegian, kalabojoetara eraman aurretik, bulego batera eraman zuten Teo Uriarte, eta han lurtean ostikoka erabili zuten poliziek. Gero etorriko zitzaigunaren aperitiboa izan zen hura, baina Teo Uriarte ahaztu egin da nonbait ordukoaz [1977an lortu zuen amnistia Teo Uriartek, eta Euskadiko Ezkerra alderdiaren sortzaileetako bat izan zen. Gero, 1993an, Euskadiko Ezkerra eta PSEren fusioaren bultzatzaileetako bat izan zen].

**Burgosko epaiketan auzipetu zintuzteten gero. Akusazioan jasotzen zenez, ETAk 1968tik 1969ko maiatzera izandako jarduera epaitzea zuten helburu, baina akusatuen zakuan garai eta leku desberdinetan abxilotutako hamasei lagun sartu izanak beste zerbaitek pentsatzeko bidea ere ematen du. Zer epaitu zuten Burgosko prozesuan?**

Jende asko sartu zuten zaku hartan. ETAren inguruan ibilitakoak izango ziren, baina armarik ikusi ere ez zutenak egin haie-tako batzuk. Auzipetzekotan ere, beste sumario batean auzipetu behar zituzten, baina zaku berean sartu gintuzten guztiak. Izan ere, epaiketa haren helburua ez zen gu eta gure delituak epaitzea. Herriari eskarmentu bat eman nahi izan zioten Burgosko prozesuarekin. Frankismoa ahul zegoen, herri borroka gero eta indar handiagoa hartzen ari zen eta herria esnatzen ari zen. Herria mila modutara manifestatzen zen, eta Frankismoak beldurra sartu nahi zion herriari. Horixe zen helburu nagusia. Baina gaizki irten zitzairen, oso gaizki. Frankismoaren kontra bihurtu zen Burgosko prozesua. Dena den, nik beti esaten dut Frankismoa ez dela desagertu oraindik. Aurpegia aldatu zuen bakarrik.

**70eko abenduaren 28an epaimahaiak zigoren berri eman zuten: bederatzi heriotza zigor, eskatutakoak baino hiru gehiago, eta 519 kartzela urte. Abenduaren 30ean, berriz, indultua. Mobilizazioak atzera bota zuten Francoren gobernua, baina uste duzu mobilizazio haiek izan ez balira, Francok erreparorik izango lukeenik zuen kontrako zigorrak betearazteko?**

Ez. Uste genuen bina heriotz zigor ezarri zieten kasuan, bereziki, boletu asko zeudela exekutatzeko. Azkeneko ezezkoa etorri zen arte ez genuen arnasarik hartu.

**Bi apaiz zinatzen prozesatuen artean: zu zeu eta Julen Kalzada. Eliza Katolikoak ere arreta berezia jarri zuen epaiketa hartan. Babesik sentitu zenuen?**

Bai eta ez. Bi gauza daude hor. Batetik, apaizen jokabidea azpimarratuko nuke. Apaizek, nik uste, zintzo eta zorrotz jokatu zutela, eta eliza ofiziala presionatu zutela gu zigorgabetzeko. Eta bestetik, gotzainak-eta zeuden. Hala ere, apaizek egindako presio hori oso garrantzitsua izan zen, batez ere epaiketa ateak zabalik egin zedin. Izan ere epaiketa hura ateak itxita egitekoa zen [Espainiaren eta Vatikanoren arteko hitzarmenaren arabera, apaizak tartean zeuden epaiketak ateak itxita egin behar ziren].

**“Herriari eskarmentu bat eman nahi izan zioten Burgosko prozesuarekin”**

**Epaiketan apropos sartu zintuztela uste dutenak ere badira.**

Nik ez dakit, baina abokatuen ustez, apropos sartu gintuzten epaiketak ateak itxita egin ahal izateko. Dena den, apaizek egindako presioari esker, gotzainek esku hartu zuten eta epaiketa ateak irekita egiteko eskatu. Aita santuaren jokabidea ere agerian utzi nahiko nuke. Talde bat joan zen hemendik Erromara, aita santuari guretzako indultua eskatzera. Nire ama ere han zen. Aita santuaren zain zeudela monseñore bat agertu zitzairen, eta bedeinkazioa ematea ezinezkoa zela esan zien. Errosario bana eman nahi izan zien hark, baina, jakina, gurek ez zioten onartu. Gure amarentzat eskandalagarria izan zen, bera oso eliztarra zelako. Deseingainu izugarria hartu zuen.

**Akusazioaren kontra elkar hartuta joan zintuzten epaiketara, planteamendu jakin batekin.**

Guk herriak bizi zuen zapalkultza salatu nahi genuen, eta epaiketan gutako bakoitzak za-

palkuntza horren alderdi bat salatu behar zuten. Guk han esan nahi genuena herriak bazekien, egunero bizi zuelako, eta gure salaketa hura kanpora begira zen gehiago. Hala ere ahoa zabaldu ordurako hitza kentzen ziguten epaiketan. Horregatik, protagonistak ez ginen gu izan han, herria baizik. Herriak gelditu zuen Franco eta hura guztia.

**Zer zen salatzea egokitu zitzaizuna?**

Elizaren jokabidea eta Elizarekiko nire postura azaltzea. Horretarako, epaiketan apaiz jantzita azaltzea erabaki nuen. Egia esan ordurako apaiz izateari utzia nion, baina epaiketa hartan apaiz nintzela egin nituen gauzengatik epaitzen ninduten. Gogoeta probokatu nahi nuen fededunen artean.

**Zer gogoeta klase?**

Gauza bat agertu nahi nuen apaiz gisa: kristau izanda posible zela herri honen alde egitea, eta momentu jakin batean, herriak bazuela eskubidea armekin bere herria defenditzeko, eta Elizak ez zeukala zertan horren kontra egon. Garbi utzi nahi izan nuen ez nintzela lotsatzen armarekin ibili izanaz. Ez nuen nire militantzia ezkutatu nahi.

**Kanpoan gertatzen ari ziren mobilizazioen berririk bazenuten?**

Bai. Gauero etortzen zitzaizkigun abokatuen kartzelara, kanpoan gertatzen ari zenaren berri emanez. Indar handia eman ziguten mobilizazio haiek. Ikaragarria izan zen.

**Zer diozu gaur egungo egoera politikoa iruzuruz? Jarraitzen duzu?**

Bai, jakina. Nik esango nuke konponbidearen atarian egon ordez konponbiderako bidean gaudela, eta bide hori luzea eta gogorra izango dela. Pauso garrantzitsua eman da, atzerabiderik ez duen pausoa, baina ni ez naiz batere optimista. Ez dut uste ondorengo pausoak berehalakoan etorriko direnik. Prozesu latza izango da, Madrilak ez duelako amorerik emango. Madril oso eroso ibili da borroka armatuaren kontu honetan. Bere tributoa pagatu izan du, bai, baina nik esango nuke Madrilgo politika prest zegoela tributo hori ordaintzeko. Bertigo handia diote aldatketari, eta egokitu ezinda dabilta orain bai PP eta bai PSOE.

**Beste zerbaite gehituko zenuke?**


Bai. Oso gogoan dauzkadala Elgoibarko presoak eta baita haien senideak ere, eta berriz berriz berriz bidaltzen diedala hemendik.

## Japonian gertatutako hondamendiak zentral nuklearren gaineko eztabaida piztu du. Kezkatzen zaitu Garoñako zentral nuklearrak?



**Arsenio Martinez**  
48 urte, langabetua

Garoñako zentralak baino gehiago kezkatzen naute ni Frantziakoek. Frantziak 29 zentral nuklear ditu, eta lau Piriniotan daude. Horietan zerbait gertatzen bada, hona ere iritsiko da kaltea. Energia alternatiboen aldekoa naiz ni, baina garbi dago energia nuklearra ezingo dugula kolpetik kendu.



**Faustino Garcia**  
59 urte, jubilatua

Nola ez naiz kezkatuko bada! Egin zuten egunetik beretik kezkatzen nau ni Garoñako zentral nuklearrak. Garoñakoak, Tarragonakoak eta denek, azken batean. Ez dakit zentral guztiak itxi ahal izango diren, baina zenbat eta gutxiago egon hobeto. Eta Garoñakoa itxi dezatela, zaharra dago eta.



**Amaia Erkizia**  
34 urte, langabetua

Japonian gertatutakoa hemen gertatzea zaila ikuten dut, baina hala ere beldur handia ematen didate zentral nuklearrek. Beti egon daiteke arazoren bat, ihesen bat edo beste edozer. Japoniakoak gutxienez agintariak arazo horren gaineko kontzientzia hartzeko balio izan du.



**Susana Armendariz**  
42 urte, langabetua

2013an itxtekoa dute, baina batzuek luzatzearen alde ere egin dute. Ikusitakoak ikusita, iruditzen zait badela ordua Garoñako zentral nuklearra itxeko. Edozer gerta daiteke, eta gainera han pilatzen den hondakin nuklear guztiarekin zer egingo dugun ere ez dakigu garbi. Itxi dezatela behingoz!

## ■ SEMAFOROA



**Txalo bat Herri Eskolako irakasleei eta ikasleei inauterietako jaialdia eskaintzeagatik:**

“Inauterietako martitzenean jaialdi bikaina eskaini zenuten, eta izugarri ondo pasatu genuen gure seme-alabek lasai asko disfrutatu zuten astearteko jai giroaz, asteazkenean jai zeukaten-eta! Sekulako ideia iruditu zitzaigun asteazkena jai hartzearena”.



**Txalo bat Ludotekari, inauterietan antolatutako festagatik:**

“Inauterietako ostiralean festa bikaina antolatu zuten Ludotekari, eta umeek primeran pasatu zuten. Denak moztortuta joan ziren, eta umorez eta kolorez beteriko arratsaldea izan zuten”.



Zuen kezak, galderek edo txaloak bidaltzeko:  
[barrene@igolbarkozarra.com](mailto:barrene@igolbarkozarra.com) 943 744 112

# Elgoibartar gazteak Lanbide Heziketaren bidetik



**Elgoibarko Udalak lanbide heziketari buruzko bigarren astea antolatu du aurten. Elgoibar herri industrialala dugu, gure izaera eta etorkizunak industriari du oinarria, eta gure enpresek gazteak beharko dituzte euren lana garatu eta herriari aberastasuna ematen jarraitu ahal izateko. Bestalde, gure populazioa nagusitzen doa, eta horrek hainbat behar sortuko ditu. Eta nola lortu teknikari kualifikatuak? Behar tekniko eta osasungintzako harrobia prestatzeari begira, Elgoibarrek ere baditu tresnak: lanbide heziketako bi ikastetxe aurreratu, IMH eta Meka alegia. Ikastetxe elgoibartar hauetatik pasatu diren ikasleak gonbidatu ditugu hona, beraien esperientzia eta iritzia ezagutzeko.**

Lanbide heziketaren bidez, lanbide heziketari buruzko bigarren hezkuntzan diharduten ikasle eta haien gurasoei zuzendutako zabalkunde kanpaina burutzen ari da Elgoibarko Udala, IMH eta Mekaren elkarlanarekin, otsailen hasi eta apirilaren 2a arte. Dagoeneko *coaching* saio bat egin da Arreiturreko DBHko ikasleen gurasoei zuzenduta, eta DBHko 4. mailako ikasleek Elgoibarko makina erremintaren Etxe-Tar enpresa ezagutu dute aste honetan.

## IMHko IKASLE OHIAK


### ALBERTO GARATE (LAIP) Gerentea



Ingeniaritza tradizionala ikasteari utzita sartu nintzen lanbide heziketan. Fabrikazio mekanikoko diseinuko zikloa amaitu ondoren, IMHko txandakako ingeniari egiteko aukera suertatu zitzaidan, eta zikloetan ikasitako guztia oso baliagarria egin zitzaidan ingeniariak planteatutako proiektua aurrera eramateko. IMHren ziklo eta txandakako ingeniarietan, aldi berean lan egin eta ikasiaz, prestakuntza teknikoaz gain, heldutasuna eta umiltasuna ere lortzen dituzu. Gaur egun enpresa bateko gerentea naiz, eta langileek asko balioesten dute eurek dauden tokitik pasatu naizela jakitea.

### AMAIA MAIZTEGI (GORATU) Makinen abiarazte eta egiaztapen teknikaria

Nire ustez lanbide heziketa lanpostu bat bilatzeko modu on bat da, lanbide bat ikasten duzulako. Nik mantentzen eta muntaiako ikasketak egin nituen, eta muntatzaile lanetan hasi nintzen. Gaur egun elektronika lanak egiten ditut, makinak martxan jarri eta bukaerako egiaztapenak egiten ditut. Ingelesa ere asko erabiltzen dut bezeroekin. Lan honetan beti zaude gauza berriak ikasten.



## ANA OSORO (AQME) Teknikari proiektugilea




Lan munduari begira irteera oso ona zuelako eta gustuko nuelako aukeratu nuen zikloak ikastea. Fabrikazio mekanikoko diseinua ikasi nuen, eta gaur egun delineatzaile proiektugile gisa dihardut lanean, nire ikasketekin lotura zuzena duen postu batean. Lan baldintza benetan egokiak, ordutegi finkoa... bizitza kalitatea lortu dut. Lanbide heziketa ikastea gomendatzen dut, krisiagatik lan gutxiago egonda ere, gure ingurua industrialia izanik lan aukera gehiago izango baitituzu aukeratutako zure ikasketek industriarekin lotuta badute.

## JAVIER TORQUEMADA (ETXE-TAR) Mekanizazio arduraduna

Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa ikasi nuen IMHn, lan munduari begira laneratze zuzena eskaintzen zuelako. Eta ondoren, kalitateko ikastaro aurreratu bat egin nuen IMHn bertan. Enpresetan ez dira denak ingeniariak izan behar; nire ustez, etorkizunean teknikariak faltako dira, eta baliotsuagoak izango dira, zikloetan ongi ikasten baita tailerraren egunerokoan. Neska gehiago animatu nahi nituzke lan honetara, izan ere enpresak ez dituzte neskak eta mutilak bilatzen, lanerako gogotsu dauden pertsonak baizik.



## OIER RAMOS (ETXE-TAR) Makinen CNC eta doitze arduraduna



Nik ziklo bat egitea aukeratu nuen, gustuko nuen lanerako prestatzeko ikasketa egokiena zelako. IMHko instalazio eta ikasketei buruz oso ondo hitz egin zidaten, eta han ikastea erabaki nuen. Han ikasitakoa benetan baliagarria izan zait lan munduan aurkitu ditudan arazo desberdinei konponbidea aurkitzeko. Hori dela eta, aholku bat eman nahi nuke: inoiz ez zaio ikasteari utzi behar, teknika eta erreminta berriei aurre egin eta horrela lehiakorrak izaten jarraitzeko.

## MEKAko IKASLE OHIAK

### AITOR ARRIOLA (ITV-IAT) Mekanikoa

- **Zer eman dizu MEKA Institutuak eta Lanbide Heziketak?** Meka institutoan alde teorikoa ikasi nuen, baina baita alde praktikoa ere, eta hori, prestakuntza ona izatea, oso inportantea da lanean hasteko orduan.
- **Momentu honetan zein da zure ogibidea? Zertan lan egiten duzu?** Mekanikoa naiz. Bergarako iat/itv lan egiten dut, kotxeak aztertzen.
- **Zein oroitzapen gordetzen dituzu?** Oso garai onak izan ziren. Nire lan prestakuntza oso interesgarria egin zitzaidan, eta gogoratzen dut oso giro ona genuela bai ikaskideen artean eta baita irakasleekin ere. Auto mundua gogoko duen edozeini gomendatuko nioke nik ikasi nuena ikastea.



### JOSE MARI PEREZ (GALDARAGINTZAKO IKASLEA)



- **Zergatik hasi zinen Galdaragintza ikasten?** Langabezian nengoelako, eta ziklo interesgarria iruditzen zitzaidalako.
- **Lanbide Heziketa egin ondoren lana beti egoten da. Krisia dela eta nola ikusten duzu zure etorkizuna?** Orain hasiko naiz enpresan lan praktikak egiten, hiru hilabetez. Garbi dago ekonomia ez dagoela bere sasoi onenean, baina nik joan behar dudan enpresetan lana sartu da, eta itxaropentsu eta gogo handiarekin nago.
- **Esan diguzu langabezian egoteak bultzatu zaituela berriro ikastera. Zuk egindakoa egitea gomendatuko zenieke zure egoera berdinean daudenei?** Badakit momentu honetan diru arazoa dagoela, baina nire usteetan galdaragintzan lan eskaintza handia dago, eta aprobetxatu egin behar dira ziklo edo kurtso hauek.

## MIREN GALDONA (SAN LAZARO EGOTZA) Erizaina

- **Zer ikasketa egin zenituen MEKAn, eta orain zertan eta non ari zara lanean?** Erizain laguntzailea naiz, eta orain Elgoibarko San Lazaro egoitzan ari naiz lanean erizain laguntzaile moduan.
- **Pilar zentro berria laster zabalduko dute, eta oraindik zer ikasi ez dakitenei gomendatuko zenieke osasun arloko ikasketekin jarraitzea?** Lanbide hau benetan gustuko badute jakina animatuko nituzkela. Lan gogorra da, baina aldi berean, oso aberasgarria.
- **Aipatu, Miren, MEKAn ibili zinen garaiko oroitzapenak.** Hango lagunekin pasatu ditudan uneak etortzen zaizkit burura. Betirako lagunak ezagutu nituen han, eta gaur egun oraindik harremana mantentzen dut haiekin. Hiru hilabeterako Irlandara egin genuen bidaia ere nekez ahaztuko dut. Erizain laguntzaile praktikak egitera joan ginen, eta asko ikasteaz gain, ikaragarri ondo pasatu genuen.



## LORENA LOPE (KUTXA) Administraria



- **Non zaude lanean. Non eta zer ikasi zenuen?** Eibarko Kutxan dihardut lanean. DBH eta Batxilerraren titulua eskuratu ondoren, Elgoibarko MEKAn administratzaile eta finantzak ikasten hasi nintzen. Goi mailako heziketak bukatu bezain laster kontratatu ninduen Kutxak.
- **Askorekin zure Kutxa MEKAn ikasitakoak?** (Elgoibarren, Eibarren, Mendaron...) Nik dakidala, gutxi gora-behera hamar bat lagun gaude MEKAn ikasitakoak. Elgoibar, Azpeitia, Ermua, Eibar eta Mendaroko bulegoetan ari gara.
- **Orain Batxilerra bukatu berri bazeude Goi mailako Administrazioa ikasiko zenuke berri MEKAn?** Noski baietz, oso gustura egon nintzen MEKAn, bai alde akademikoari dagokionean eta baita arlo pertsonalari dagokionean ere. Klaseak oso ondo bideratuta daude, ikasleak ondo ulertu dituzten kontzeptuak. Batez ere klase praktikoa laguntza handikoak dira, oso pozik geratu ginen Elgoibai proiektuarekin. Laguntza handikoa izan zen klase teorikoak praktikan jartzeko. Nik neuk karrera bat egin baino lehen goi mailako ziklo bat egitea gomendatzen dut.



Antolatzaileak:



## AGENDA

- Martxoaren 23an, Zine-foruma. Makina Erremintaren Museoan, 17:00etan: "Makina erremintaren industria eta lanbide heziketaren garrantzia atzo, gaur eta bihar".
- Martxoaren 30ean, Orientazioari buruzko jardunaldia, "Hitz egin dezagun lanbide heziketaren inguruan", Meka – Albitxurin, 9:30ean.
- Apirilaren 2an, Elgoibarko Prestakuntzari buruzko II. azoka, 11:00etan Kultur Etxeko Sotoan.

## 36ko Gerrako umeei buruzko erakusketa jarri dute Kultur Etxean

Martxoaren 28ra arte egongo dira ikusgai argazkiak

**G**erra zibileko umeei buruzko argazki erakusketa antolatu du Udaleko Kultura Sailak, Idi Ezkerra fundazioaren eta Elgoibar1936 taldearen laguntzaz. *Bizi guztia ume izaten* izena dauka erakusketak, eta 36ko gerrako ume euskaldunei eginiko omenaldiaren emaitzeta-ko bat dela adierazi dute antolatzaileek. Haien esanetan, Euskal Herriaren memoria historikoa berreskuratzeko ekintza da. Erakusketa gaur zabaldu dute, eta martxoaren 28ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean, astelehenetik zapatara 19:00etatik 21:00etara.



## Fin aritu ziren elgoibartarrak Oiartzungo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan

Ane Espilla eta Andrea Arregi dantzari elgoibartarrak bigarren eta hirugarren sailakutu ziren Oiartzungo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan. Martxoaren 12an jokatu zuten lehen jardunaldia 11 eta 15 urte bitarteko dantzariak, eta aipatutakoez gain, Inazio Bereziartua eskolako beste bi dantzari hartu zuten parte: Saioa Marcos (14. postua) eta Leire Morales (19. postua). Hilaren 13an, 7 eta 11 urte bitartekoen txanda izan zen, eta Elgoibarko hiru dantzari lehiatu ziren sail honetan: Julen Guilló (6. postua), Joseba Astigarraga (7. postua) eta June Loidi (10. postua). Hurrengo kaporaketa Elgoibarren jokatu dute, martxoaren 26ko asteburuan.

## Musika eskolako auditorioa txiki geratu zen talde instrumentalaren kontzertuan



Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalek kontzertua eskaini zuten martitzenean, eta auditorioa txiki geratu zen. Ikasle, irakasle, guraso eta musikari gazteen lagun mordoa batu ziren auditorioan, musikaz gozatzeko. Talde bakoitzak bere emanaldia eskaini zuen, eta ikusleek txalo zaparrada handi batekin eskertu zuten.

## Declan de Barra eta Old Kerry Mckee musikarien kontzertua, domekan

Declan de Barra eta Old Kerry Mckee musikariak kontzertua eskainiko dute domekan. Sinuose taldeak antolatu du ekitaldia, Lerrun jatetxearen laguntzarekin. Declan de Barra musikari irlandarra bere hirugarren lanarekin etorriko da Elgoibarrera, eta musika konposaketa sentiberak ahots indartsuarekin uztartuko ditu. Old Kerry Mckee kantautore suediarra, bestalde, 60. hamarkadako folk eta blues estiloak lantzen ditu. Kontzertua 19:00etan hasiko da, Kultur Etxeko sotoan.

## Oberland itzuliari buruz hitz egingo du Arkaitzlruretak, Ostegun Bidaiarien barruan

Martxoaren 24an izango da Ostegun Bidaiariak egitasmoaren bigarren eta azken saioa. Arkaitz Lrureta elgoibartarrak Europa kontinentaleko glaziar luzeenean barenena, Alpeetan, egin zuen Oberland itzuliaren gorabeherak azalduko ditu. Paraje horietara bidaiatzeko aholku eta informazioa eskaintzeaz gain, han bizitakoak partekatuko ditu Kultur Etxeko hitzaldi gelara hurbiltzen direnekin. Hitzaldia 19:00etan hasiko da.

## Marxoaren 23an amaituko da Aldundiko udalekuetan izena emateko epea

Gipuzkoako Foru Aldundia- ren udaleku programan izena emateko azken eguna martxoaren 23a izango da. Eskae- rak banaka eta taldeka egin daitezke (taldeko 3 lagun gehienez), eta ondoren, izena ematen duten guztien artean zozketa egingo da plazak banatzeko. Interesatuek ondorengo lekuetan eman dezakete izena: Elgoibarko Gazte Informazio Bulegoan (943 257 986), Foru Aldundiaren bulegoetan edo [www.gipuzkoa.net/op-raldi](http://www.gipuzkoa.net/op-raldi) webgunean.

## Alkorta eskubaloi taldeak Nazional Ligako bigarren mailarako igoera fasea jokatuko du

Eskubaloi ekintzaz beteriko asteburua antolatu du Sanlok benjaminentzako

**A**lkorta senior mutilen taldeak Nazional Ligako bigarren mailarako igoera fasea jokatuko du, Eibarko Haritza taldeari 32-33 irabazi ostean. Sanloko arduradunen arabera, partida gogorra izan zen, eta azken momentura arte sufritu zuten jokalariek eta ikusleek. Elgoibartik jende asko joan zen Eibarrera Alkortako jokariak animatzera, eta jokalariek eskerrak eman nahi dizkiete zaletu guztiei. Alkortak hirugarren amaitu du ligan, Zarautz eta Egiaren atzetik.

Igoera fasea martxoaren 26an hasiko da, eta sei taldek hartuko dute parte; hiru Gipuzkoakok, bi Bizkaikok eta Arabako batek.

### Eskubaloi asteburua

Sanloko eskubaloi eskolak, bestalde,



eskubaloiari loturiko asteburua antolatu du benjaminentzako. Apirilaren 16an jokatuko dituzte partidak Plaza Handian. Eguerdialdean Aubixa barnetegira igoko dira begiraleekin, eta domekan itzuliko dira etxera. Elgoibarko, Mendaroko eta Debako umeak gonbidatu dituzte. Parti-

dak jokatzea dohainik izango da, baina Aubixako egonaldirako izena ematen dutenek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko 943 748 921 telefonora deitu edo [elgoibarkosanlo@sanlo.net](mailto:elgoibarkosanlo@sanlo.net) helbidera idatzi daiteke.

## Egoitz Mora elgoibartarrak bosgarren egin du Espainiako judo txapelketan



Egoitz Mora bosgarren sailkatu zen Espainiako judo txapelketan, 100 kilo azpikoen kategorian. Lehenengo saioan 23 urtez azpiko Espainiako txapeldunari irabazi zion, berderatzi minutuko borrokaldian. Ondoren, David Perez Espainiako egungo txapeldunaren kontra jokatu zuen, eta deskalifikatu egin zuten elgoibartarra, arerioari praktetatik heldu ziolako. Hirugarren borroka Aaron Rodriguez andaluziarraren kontra jokatu zuen, eta galtzen hasi zen arren, irabazi egin zion eta brontzezko dominaren lehian sartu zen. Santiago Diaz nafarraren kontra lehiatu zen azken borrokan, eta galdu egin zuen elgoibartarrak.

### Aralarrera irteera

Morkaikok Aralarrera irteera antolatu du apirilaren 3rako. 25 kilometroko ibilbidea prestatu dute, eta Aralarreko mendikatea zeharkatuko dute, hegoaldetik iparraldera. Aralarko San Migel azpiko guardetxetik hasita, Igaratzara joango dira, eta gero, Amezketarako bidea hartuko dute. Antolatzaileek zazpi orduko ibilbidea izango dela aurreikusi dute.

Izena emateko epea zabalik dago. Elkarteko bazkideek 7 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 10 euro. 26 urtetik beharagoentzako prezioa 5 eurokoa izango da.

### Igeriketa ikastaroa

Patronatuak haurrentzako eta helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko du apirilaren 4tik maiatzaren 26ra. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena, martxoaren 28tik 31ra bitartean.



# Mancebok eta Etxeberriak Udaberri Txapelketako pala finala jokatuko dute

Lau partida irabazi eta bakarra galdu dute txapelketan

**E**lgoibarko Lagunak pilota eskolako Eulogio Mancebok eta Andoni Etxeberriak Gipuzkoako Federazioak antolatutako Udaberri Txapelketako pala finala jokatuko dute. Lehenengo partida galdu egin zuten Altzaren kontra, baina ondorengo lau partidak irabazi egin dituzte, eta finalerako sailkatzea lortu dute. Elgoibartarren kontrako bikotea Altxa eta Goierriren arteko final erdia irabazten duena izango da. Finala martxoaren 25ean jokatuko dute Altzako frontoian, 20:30etik aurrera.



## 40-15 elkarteak padel ikastaroak eskainiko ditu apiriletik aurrera

40-15 elkarteak padel ikastaroak antolatu ditu, Kirol Patronatuaren laguntzaz. Bi talde egingo dituzte: bata, hasiberrientzako, eta, bestea, maila handiagoa duenentzako. Talde bakoitza bost edo sei lagunekoa izango dela aurreratu dute antolatzaileek, beraz, plazak mugatuak izango dira. Ikastaroak hogeitau ordukoak izango dira, eta apirilean hasiko dira. Kirol Patronatuko bazkideek 92 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 100,90 euro. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena.

## Aste Santurako Kirol Campusa antolatu du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak



6 eta 12 urte bitarteko umeentzako Kirol Campusa antolatu du Patronatuak Aste Santurako. Apirilaren 18, 19, 20, 26, 27, 28 eta 29an hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute izena ematen dutenek. Mintxetan, kiroldegian, Herri Eskolako kantxa estalian eta ikastolako frontoian egingo dituzte ekintzak, goizez, 9:30etik 12:30era bitartean. Interesatuak apirilaren 1era arteko epea dute izena emateko. Patronatuko bazkideek 45 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 50 euro.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Santurtzi 0 – Haundi 1 (3. maila)  
Elgoibar 0 – Urola 0 (Erreg. pref.)  
Elgoibar 2 – Lagun Onak 1 (Neskak)  
Aloña Mendi 0 – Elgoibar 1 (Kad. A)  
Elgoibar 2 – Urki 1 (Kad. B)  
Elgoibar 2 – Vasconia 4 (Inf. Txiki)  
Zumaiako 5 – Elgoibar 1 (Aleb.)

### PILOTA

#### UdaberriTxapelketa

Lagunak 22 – Intxurre 16 (2. mailako nag.)  
Pala  
Mundarro 20 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Lakuntza 4 – Concepto Createch Elg. 7 (1. maila)  
King-Kong Elg. 6 – Goierri 4 (Jub.)

### XAKEA

Mekatar Elg. 2,5 – Gros F 1,5

### ESKUBALOIA

Haritza 32 – Alkorta Elg. 31 (Sen. mut.)  
Pulpo 27 – Beristain Elg. 31 (Jub. mut.)  
Ordizia 42 – Txarriduna Elg. 42 (Kad. mut.)  
IMH Elg. 12 – Aloña Mendi 21 (Kad. neska)  
Argintxiki 22 – Aterpe Elg. 17 (Inf. mut.)  
Bankoa Elg. 17 – Argiki 14 (Inf. mut.)  
Astigarraga Elg. 13 – Udarregi 14 (Inf. neska)  
Aloña Mendi 22 – Ikus Elg. 22 (Inf. neska)  
Urdaibai 23 – Tecnifuelle Elg. 19 (Sen. neska)  
Grupo Eibar Elg. 26 – Basauri 28 (Inf. neska)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 19

16:00 Concepto Createch Elg. – Euskalduna (1. maila)

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 19

12:30 Elgoibar – Ondarroa (Ohorezko inf.)

16:30 Haundi – Sestao (3. maila)

18:45 Elgoibar – Sanse (Jub.)

#### Domeka, 20

11:30 Elgoibar – Sanse (Kad. A)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 19

10:15 Ikus Elg. – Udarregi (Inf. neska)

11:30 Aterpe Elg. – Leizaran (Inf. mut.)

13:00 Beristain Elg. – Katillu (Jub. mut.)

18:00 Tecnifuelle Elg. – Basauri (Sen. neska)

19:30 Lauko Elg. – Urdaneta (Kad. neska)

#### Domeka, 20

10:45 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb. neska)

12:00 Txarriduna Elg. – Urnieta (Kad. mut.)

# JUAN OTEGI

ABOKATUA

## “Interneten ez dago inolako segurtasunik”

Modan daude sare sozialak, bereziki, gazteen artean. Lehen, parkean biltzen ziren gazteak jolasteko, baina gaur egun sare sozialetan elkartzen dira, eta ordenagailu bidezko harremanek indar handia hartu dute. Hezur eta haragizko hamar lagun edukitzetik, berrehun lagun birtual izatera pasatu dira egungo gazteak. Informazioa trukutzen dute, informazio asko eta pertsonala. Baina badakite informazio hori noraino iristen den? Juan Otegi abokatu eta adituak esandakoaren arabera, sare sozialetan jartzen den informazioa edonora iritsi daiteke. Bere ustez, Interneten ez dago segurtasunik, eta sarean kontu handiz nabigatu behar da. Interneteko arriskuei buruzko prestakuntza saioa eskainiko du eguaztenean Kultur Etxean, eta ahalik eta guraso gehien biltzea da bere nahia. 19:00etan hasiko da hitzaldia, eta Gazteria Sailean eman behar da izena.



**Zertaz hitz egingo duzu sare sozialei buruzko prestakuntzan?**

Sare sozialek adingabeen artean duten eraginari buruz hitz egingo dut. Sare sozialek dituzten arriskuez kontzientziatu nahi ditugu gurasoak. Askotan pentsatzen dute euren seme-alabek informatikari eta sare sozialei buruz gauza asko dakizkitela, baina ez dakite ezer. Gurasoentzako, tutoreentzako, irakasleentzako eta ikasleentzako prestakuntza izango da.

**Zer dira sare sozialak?**

Hasteko, sare sozialak negozio izugarria direla izan behar dugu kontuan. Enpresa batek doan eskaintzen duen espazio birtual bat da, eta espazio horretan norberak nahi duen informazioa jarri dezake, bere lagunekin konpartitzeko.

**Informazioa lagunekin bakarrik konpartitzen da edo edonork ikusi dezake?**

Interneten ez dago inolako segurtasunik eta oso erraza da sarean datuak, pasahitzak

edo bestelako informazioa lapurtzea. Askok ez dute imaginatu ere egiten, baina oso erraza da birus informatikoen bidez besteen ordenagailuan sartu, informazioa hartu eta gero norberaren onurarako erabiltzea. Sare sozialetan jartzen den informazioaren pribatasuna betirako galtzen da. Ordenagailuentzako segurtasun neurriek laguntzen dute arriskua gutxitzen, baina hackerra ona bada, ez dago zereginik. Datuen arabera, hamar lapurretatik zortzi informatikoak dira.

Birus batek teklatuan egiten duzun guztia kopiazen du, eta mugimendu guztiak jasozten ditu. Horregatik banku elektronikoan eragiketak egiteko xaguarekin teklatu behar da pasahitza. Gaur egun dauden birus informatiko batzuk zure ordenagailuaren erabateko kontrola hartu dezakete, zu konturatu gabe. Informazioa lapurtzeaz gain, zure ordenagailua erabili dezake beste batzuei erasotzeko, eta horrela, eraso-sare handiak sortzen dira. Honi guztiari buruzko adibideak jarriko ditugu formazioan.

**“Lagun bat eta kontaktu bat desberdinak direla azaltzen ahalegintzen naiz”**

#### **Zein adinekin hasten da jendea sare sozialetan ibiltzen?**

Gure datuen arabera, 11-12 urterekin hasten dira, eta legez 14 urtetik beherakoek debeatuta dute sare sozialetarako sarbidea.

#### **Zein adinetan komeni da seme-alabei ordenagailua erostea, zure ustez?**

Adina baino gehiago, ordenagailuaren kokalekua da inportantea. Gazte bati ezin zaio ordenagailua logelan jarri. Ordenagailua etxeko leku komun batean egon behar da.

#### **Sare sozialetan dabilen jendeak badaki informazio hori noraino iritsi daitekeen?**

Ez daukate idearik ere. Adingabeei ematen dizkiegun prestakuntza saioetan ikusten dugu zer nolako ezjakintasuna daukaten. Denek uste dute gauza pila bat dakitela, baina sare sozialen biktimak dira.

#### **Zein da Facebook eta Twitter bezalako sare sozialen arrakastaren arrazoia?**

Sare sozialak benetako bizitzaren paraleloan dauden errealitate birtualak dira gazteentzako. Hau da, gazteak sare sozialen bidez sozializatzen dira, eta euren aurkezpen erretratua dira sare sozialak. Norberak bere horma modu berezian zaintzen du, eta han agertzen den informazioa da berak gizaritari erakutsi nahi dion irudia. Guraso batek bere semea nolakoa den ezagutu nahi badu, sare sozialeko profila bisitatu

besterik ez du. Gazteentzako oso garrantzitsuak dira sare sozialak, baina ez dakite zelako arriskuak dituzten.

#### **Sare sozialen eraginez, adiskidetasun kontzeptuaren esanahia aldatu egin dela uste duzu?**

Erabat. Ikasleei prestakuntza ematean beti galdetzen diet ia zenbat lagun dituzten, eta askok esaten didate lauhun lagun dituztela. Lagun bat eta kontaktu bat gauza desberdinak direla erakusten ahalegintzen naiz. Gu gazteak ginenean parkera joaten ginen, eta bertan egoten ginen kontu kontari. Gaur egun, kalera irten aurretik txateatu egiten dute, eta elkartzeko direnean ez dute jakiten zertaz hitz egin.

#### **Zein motatako informazioa jartzen du jendeak sare sozialetan?**

Jendeak informazio oso pribatua zintzilikatzen du sare sozialetan: zer egin duen asteburuan, norekin egon den, zein harreman izan dituen... Lehen esan bezala, negozio bat da. Facebook-ek diru sarreraren %85 publizitate eskuratzen du, eta bere sortzailea munduko aberatsenen artean dago. Informatikoki sekulako kostua dauka informazio hori guztia kudeatzeak, eta hori publizitateari esker lortzen dute. Ez gara konturatzeko, baina sare sozialetan dabiltzan gazteak etengabe ari dira publizitatea jasotzen.

#### **Gurasoek badakite euren seme-alabak zertan ibiltzen diren ordenagailuan?**

Ez. Burutik pasatu ere ez zaie egiten euren seme-alabek jasaten dituzten arriskuak zentzuzkoak diren. Sare sozialei buruzko lau albiste entzun dituzte, eta horrekin nahikoa dutela iruditzen zaie, baina prestakuntza saioak jasotzea oso inportantea da. Euren seme-alabak logelan ordenagailuan jolasean daudela uste dute, eta ez dakite benetan zer daukaten aurrean.

#### **Zeintzuk dira sare sozialek dituzten arriskurik nabarmenenak?**

Gure prestakuntza saioan lau arrisku mota azaltzen ditugu: lehena, adikzioa da. Teknologia berrienganako adikzio arazo larriak daude, eta gazte asko goizeko 3:00etan konektatzen dira jolasteko edo txateatzeko. Nola eskatuko diozu gero gazte horri fisika ikasteko! Bigarren arrisku garrantzitsuena ziberbullying-a da. Bullying-a beti egon izan da, baina lehen lau lagun eraso jaisten bazenuen, gaur egun lauhun lagun erasotzen zaituzte. Bullying zibernetikoaren dimentsioa

askoz handiagoa da, eta gainera, erasotzen ari den gaztea ez da konturatzeko benetan eragiten duen minaz. Hirugarren arriskua grooming deritzona da. Hau da, pederasten erasoak. Pederasten %95ek sare sozialen bidez ezagutzen dituzte euren biktimak. Pederasten paradisuak dira sare sozialak. Pederastek beti nahi izan dute haur parkeetan sartzea, eta sare sozialak munduko haur parke handienak dira. Gainera, pederastak bere burua ezkutatu dezake, eta beste identitate batekin gazteen sarean sar daiteke. Birus informatiko baten bidez, zure ordenagailuaren kamera martxan jarri dezakete, eta zure logelan egiten duzun guztia grabatu. Irudi horiekin txantxa egiten diete gazteei. Normalean, informatikaz asko dakite pederastek, eta euren artean elkarbanatzen dituzte gazteen espazioan sartu ahal izateko trikimailuak. Azken arriskua, sexting-a da. Ligatzeko, eduki sexuareko informazioa trukatzeko dute gazteek sarean. Adin horretan sexuarekin esperimentatzen hasten dira, eta batzuk badute hori grabatzeko ohitura. Harremana hausten denean, informazio hori sarean jarri daiteke, besteari min emateko, eta gertatu izan da.

**“Ez dago Interneten segurtasunez nabigatzeko aukerarik, baina bai arduraz”**

#### **Zer egin daiteke Interneten segurtasunez nabigatzeko?**

Ez dago Interneten segurtasunez nabigatzeko aukerarik, baina bai arduraz nabigatzeko aukera. Gero eta segurtasun gehiago dago, baina sekula ez dugu lortuko erabateko segurtasuna. Arduraz jokatu behar da, eta besteek ikustea nahi ez duzun informazioa ezin duzu sarera konektatuta dagoen ordenagailu batean jarri. Argi eduki sarera konektatuta dagoen ordenagailuan sartzen duzun guztia lapurtzeko arriskua dagoela.

## LANA

### ESKAERA

- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo nagusiak zainduko nituzke, edozein ordutan. ☎ **699 609 190**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interna edo orduka. ☎ **629 076 301**
- Emakumea pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Edozein ordutegi. ☎ **943 530 795 / 678 972 690**
- Neska edozein lan egiteko prest. Malgutasuna daukat. ☎ **699 619 447**
- Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko prest. Erreferentzia onak ditut. Interna edo orduka egingo nuke lan. ☎ **634 650 009**
- Mutila eraikuntzan edo baserrian lan egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **685 212 060**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **618 052 967**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **616 690 415**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **943 742 201 / 652 715 908**
- Neska eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, edo beste edozein lan egiteko. Esperientzia dauka. ☎ **650 152 866**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin, sukaldetan laguntzeko edo nagusiak zaintzeko. Orduka. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **687 114 707**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **608 474 923**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **686 234 612**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Psikologia eta geriatría ezagutzak ditut. ☎ **635 313 375**
- Neska gaztea interna moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **646 977 562**
- Gizona eskaintzen da lanerako. Nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, eraikuntzan peoi lanak egiteko edo ospitalean gaixoak zaintzeko. ☎ **677 155 611**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **618 734 000**

- Neska gaztea edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **616 690 415**
  - Gizonezkoa lanerako prest. Eraikuntzan edo baserrian egingo nuke lan gustura, baina edozein lan egiteko prest nago. Nire herrialdera itzultzeko hegazkin txartela erosteko dirua behar dut. ☎ **685 212 060**
  - Neska gaztea edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **606 226 827**
  - Neska gaztea edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **662 267 569**
  - Emakumea tabernak eta lokalak garbitzeko prest. 13:00etatik 17:00etara. Asteburuetan ere lan egiteko prest. ☎ **638 527 489**
  - Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
  - Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan, eta asteburuetan ere. Esperientziaduna. ☎ **678 972 690**
  - Mutil elgilobatarrak zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 490 986**
- ### ESKAITZA
- Emakumea behar dut umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **699 795 994**
  - Esperientziadun emakumea behar da umeak zaintzeko. ☎ **605 480 813**
  - Esperientzia duen edo ama den emakumea behar da haurtxo bat zaintzeko. Zortzi orduko lanaldia. Goizez. ☎ **659 287 122 (arratsaldean deitu)**

## ETXEBIZITZAK

### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Senar-emazteak gara, seme baten gurasoak, langileak eta oso arduratsuak. Bi edo hiru gelako etxea hartuko genuke alokairuan. ☎ **689 847 947 / 676 602 481**
- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukaldia, koxka eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **685 212 060**
- Pisua alokatzen dut Elgoibarren. ☎ **650 80 91 90**
- Benidorm. Apartamentua alokatzen dut Benidorm erdigunean. Erosoa eta aire egokituarekin. ☎ **943 740 628**

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **608 474 923**
- Pisua alokatzen dut Sigman. ☎ **943 120 343 (12:30-16:00 eta 20:00-22:30 artean deitu. Mari Jose)**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan. ☎ **698 390 818**

## PARTIKULARRAK

- Ingeles eskolak hartuko nituzke etxean. ☎ **660 474 729**
- LH, DBH eta kontabilitate klase partikularrak ematen ditut. Esperientzia daukat. ☎ **666 042 710**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditut. Bakarka edo talde txikietan. ☎ **686 611 665**

## BESTELAKOAK

- Txakurkumeak saltzen ditut, prezio onean. Artzai txakur alemaniarra. ☎ **660 116 314**
- Jaunartzeko erretratu zahar bat aurkitu dut kalean. Udaltzaingoa laga dut. ☎ **943 743 561**
- 8 urteko txakurra oparitzen dut. ☎ **943 743 561**
- Pultsera bat topatu dut. Udaltzaingoa laga dut.
- Somier artikulatua elektrikoa salgai. 1,05x1,90, neurria aldatzeko hankak, latex koltxoia, eta barandauk. ☎ **943 742 864 (Mikel)**

## MERKATU TXIKIKO OHARRA

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

**Prezioak:**

**Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)**

**Autoak saltzea: 12 euro.**

**Bestelakoak: 6 euro**

Iragarkiari erretratua jarritz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.



• Zorionak, **txapeldun**, zure zortzigarren urtebetetzean. Gurasoen, eta bereziki, Aimarren partez.



• Zorionak, **Mari**, bihar 89 urte egingo dituzulako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Mari Bego!** Mendekua plater hotzean zerbitzatzen da. Nahia, Naroa eta euren laguntzaileen partez.



• Zorionak, **June**, gaur 2 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxe-koen partez.



• Zorionak, **Maria Jose**, bihar 6 urte egingo dituzulako. Gurasoen partez, ondo pasa!



• Zorionak, **Kepa**, gaur 2 urte egin dituzulako. Ondo pasa eta patxo pila bat familiakoen partez.



• Lau, lau, lau... Sardinan baikalau!!! Zorionak, **Unai**. Oso ondo pasa genuen zure egunean. Mila muxu denon partez.



• Zorionak, **Marinal** Dagoeneko 3 urte egin dituzu! Ondo-ondo pasa! Familiakoen eta bereziki, June, Naroa eta Paularen partez.



• Zorionak, **Lur!** Dimekan arnasa hartu, putz eñ, ta bi kandlei ekin!



• Zorionak, **Harriet**. Dagoeneko urtebete! Muxu handi bat etxe-koen, eta bereziki, Intza, Malen eta Haritzen partez.



• Zorionak, **Maia** zure bosgarren urtebetetzean. Patxo handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Julen**, zure bigarren urtebetetzean. Etxekoan partez.



• Aupa, **printzesita**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Iratiren partez.

**Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 743 670

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak ezarria  
Lantekua: eguz, aluminio, PVC  
Pintura orokorra



# ELENA

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49 - I      Tel: 943 741 189



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



# PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xilifon. 2 - 3.sotoa      943 74 36 52 - 74 27 89

**KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA**

## 18 barixakua

### *Erakusketa*

19:00 'Bizi guztia ume izaten'  
Kultur Etxean.

## 20 domeka

### *Antzerkia*

16:30 'Ipuinaren bila'  
Txalo Produzioak aurkeztuta,  
Herriko Antzokian.

### *Musika*

19:00 Kontzertua  
Declan de barra eta Old Kerry  
Mckee musikariak, Kultur  
Etxeko sotoan.

## 23 eguztena

### *Prestakuntza*

19:00 Sare sozialak  
Juan Otegi abokatuak sare  
sozialei buruzko prestakuntza  
saioa emango du Kultur Etxeko  
hitzaldi gelan.

### *Zine-forum*

17:00 'Erreminta makinaren  
gaurkotasuna'  
IMHko Makina Erremintaren  
museoan.

## 24 eguna

### *Landaketa*

9:15 Zuhaitz Eguna  
Ikastetxeetako 82 umek 40  
zuhaitz landatuko dituzte  
Albitxurin.

### *Hitzaldia*

19:00 Ostegun bidaiariak  
Arkaitz Irureta elgoibartarrak  
Oberland itzulari buruzko  
informazioa emango du.



Martxoaren 21ean,  
**PING-PONG  
TXAPELKETA**  
17:30etik aurrera,  
ludotekan

Martxoaren 25ean  
**PINTXO LEHIAKETA**  
gaztelekuan. Izen ematea  
binaka izango da, eta  
epea martxoak 24. Izan  
zaitez originala eta saria  
zuzentzat izango da!



**2011ko Elgoibarko  
eta Mendaroko  
gida komertziala  
eskuratu nahi?  
Pasa BARRENETIK eta  
hartu bat doan**

### OKINDEGIA

20 domeka IBARRENEA

#### FARMAZIAK (24 orduz)

- 18 Zabaleta
- 19 Etxeberria (Errosario)
- 20 Etxeberria (Errosario)
- 21 Ibañez
- 22 Garitaonandia-Bidasolo
- 23 Etxeberria (Santa Ana)
- 24 Fernandez
- 25 Yudego

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

### ZINEA

#### «También la lluvia»

18, barixakua: 22:15  
19, zapatua: 19:00/22:15  
20, domeka: 19:00  
21, astelehena: 21:30

#### «My father, my lord» (Ongarri zinekluba)

24, eguna: 21:30

«También la lluvia» Zuzendaria: Iciar Bollain. Espainia, Frantzia eta Mexiko, 2010. Iraupena: 104 minutu. Generoa: Drama. Aktoreak: Luis Tosar, Gael García Bernal, Juan Carlos Aduviri, Karra Elejalde. Costa zinema produktoreak eta Sebastian errealizadore gazte idealistak proiektu aurrerakoi bat grabatuko dute Bolibian. Espainiarrak Amerikara iritsi zireneko garaia jasoko dute bideoan, eta uste dutena baino zailtasun handiagoak aurkituko dituzte lan horretan.

«My father, my lord» Zuzendaria: David Volach. Israel, 2007. Iraupena: 76 minutu. Generoa: Drama. Aktoreak: Assi Dayan, Sharon Hacoen Bar, Ilan Griff. Komunitate ultraortodoxoan bizi da Abraham rabinoa Jerusalem, amaztearekin eta semearekin. Menahem semea munduaren bitxikireiak deskubritzeko adinean dago, eta sinesmen handiegirik jabe jarraitzen dio aitari. Aitak fedearen bidetik gidatu nahi du semea. Itsaso Beltzaren inguruan pasatuko dute uda, eta Abrahamek bere fedea ere zalantzan jarriko du.



**GORENAK**

EUSKAL HERRIKO  
SAGARDO GORENAK  
SUTIRAS SELEKTAS  
DEL PAIS VASCO

# EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK

## SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA



HAUJEK IZAN DIRA AUKERATUAK.  
PROBARIK GOGORRENAK GAINDITU DITUZTELAKO.  
KALITATE ETA PROFESIONALITASUNEAN NAGUSI DIRELAKO.  
HORREGATIK DARAMATE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.



# BERTSO BAZKARIA

IKASTOLAKO FRONTOIAN  
MARTXOAK 26, LARUNBATA  
14:30etan

13:00etan triki-poteoa plazatik ikastolako frontoira

**SARRERAK SALGAI (18€)**



**Garate Jantzidenda-  
Pitxintxu-  
Lanbroa-  
Iratxo-  
Jai-Alai-  
Iturri-**

**JON MAIA ETA AMETS ARZALLUZ**



ARNALDO ASKATU  
**POLITIKA ASKATU**

ARNALDO ASKATU  
HERRI EKIMENA